

# HARTZ TXIKIREN BISITA

Testua: ELSE HOLMELUND MINARIK

Irudiak: MAURICE SENDAK

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 15 x 23 cm. 64 or. 12 €.

ALA NOTABLE CHILDREN'S BOOK  
CALDECOTT HONOR BOOK  
HORN BOOK FANFARE

**Hartz Txikiren bisita** (euskaraz)

ISBN 978-84-7681-838-1. Kalandraka-Pamiela.

**La visita de Osito** (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-873-4. Libros para soñar.

**A visita de Osño** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-874-1. Tras os montes.

**La visita del petit Ós** (katalanez)

ISBN 978-84-8464-875-8. Llibres per a somniar.

**A visita de Urso Pequeno** (portugesez)

ISBN 978-989-749-024-8. Livros para sonhar.

Egun batean Hartz Txiki basoko etxetxora joan zen Hartz Aitona-amonak bisitatzera. Hartz Txikik oso gustuko zuen aitona-amonak bisitatzera. Gustuko zuen etxe hartako gauza politak ikustea: argazkiak; amonaren loreak; aitonaren jostailuzko iratxo saltokaria, gora eta behera bere ontzi kristalezkoan...

"Hartz Txikiren bisita" obrak sail honetako protagonista txikia Hartz Aitona eta Hartz Amona bisitatzera joan zen eguna kontatzen digu. Hartz Txikik izugarri ondo pasatzen du haien istorioak entzuten. Elkarrizketen naturaltasuna eta lagunarteko tonua, Hartz Txikiren xalotasuna eta manera onak, eta aitona-amonen konplizitatea samurtasunez eta enpatiaz betetako testu honetako osagai funtsezkoak dira.

Hartz Amonak eta Hartz Aitonak Hartz Txikiri kontatzen dizkioten ipuinak, berriz, kontakizun autonomo gisa aurkezten dira, sarrerako kapituluaren ondoren eta bisitaren amaiera atsegina baino lehen. Else Holmelund Minarik-en trebetasun narratiboa liburuaren irakurketa orohartzailea bideratzen du, bertako gai guztien bitartez: askatasuna, beldurrak gainditzea, aitona-amonen eta biloben arteko harremana, elkarrizketa eta ezagutzak eta maitasuna elkarri ematea.

Maurice Sendak-en ilustrazioek, grabatu zaharretan oinarrituak, hemeretzigarren mendeko testuinguru batean girotzen dute ekintza, klasikotasuna islatzen duten janzkeren eta kokalekuen bitartez. Irudi errealistak dira: giza itxura hartutako animaliak eta gozotasuna eta harmonia ematen duten kolore ukitu leunak.



- **Gaia:** Hartz Txikik bere aitona-amonekin duen harremana.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** "Piztiak bizi diren

lekuan", "Gaueko sukaldean" eta "Kanpoaldeko munduan" trilogiaren egile berarena; saileko beste titulu batzuk: "Hartz Txiki", "Musu bat Hartz Txikirentzat", "Hartz Txikiren laguna"; familia; aitona-amonen eta biloben arteko harremana.

## Else Holmelund Minarik

(Danimarka, 1920 – Estatu Batuak, 2012)

Lau urte zituela, familiarekin batera joan zen New Yorkera. Bertako unibertsitatean Psikologia eta Artea ikasi zituen. Kazetari eta irakasle gisa lan egin zuen. "Hartz Txiki" saileko testuen egilea, haur eta gazteentzako beste testu ugari gainera.

## Maurice Sendak

(Brooklyn, Nueva York, 1928 - Connecticut, 2012)

Haurrentzako 90 liburu baino gehiago argitaratu zituen 1951z geroztik, eta ibilbide oparo horregatik 1970ean Andersen Saria eta 1983an Laura Ingalls Wilder Saria jaso zituen. Estatu Batuetako gobernuak Arteen Domina Nazionala eman zion 1996an, eta 2003an Astrid Lindgren Nazioarteko Saria eman zioten Christine Nöstlinger egile austriarrarekin batera. Margolaritza eta marrazkigintza ikasi zituen Art Students League of New York delakoan. All America Comics delakoan lortu zuen bere lehen lana lustratzaile gisa, eta 1951n Harper and Brothers argitaletxearentzat lan egiten hasi zen ilustratzaile gisa. Literaturaren alorrean benetako iraultza eragin zuen bere liburuetako forma, eduki eta ideientzako. Berezitutako kritikaren aburuz "Estatu Batuetako gizon eraginkorrenetako bat izan zen, milioika umeren fantasiak irudikatzea erantzukizun ikaragarria dela kontua hartuta".



www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea

soltxate@pamiela.com